

9/25

irizpena

Sexu-indarkeriaren biktimei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoa

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko uztailaren 21a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 9/25



I.- AURREKARIAK

2025eko ekainaren 30ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren idazkia sartu zen; horren bidez, txostena eskatu zuen honako honi buruz: *“Sexu-indarkeriaren biktimei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoa”*, bat etorriz Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1. artikulua arabera, Sexu Askatasuna Bermatzeko irailaren 6ko 10/2022 Legearen 41. artikuluan aurreikusitako eta uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuak garatutako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura arautzea, errenta nahikorik ez duten sexu-indarkerien biktimei zuzendua.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaion Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaion eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko uztailaren 16an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen Batzordearen Osoko Bilkuran lantzeko. Han aho batez onartu zuen.

II.- EDUKIA

“Sexu-indarkeriaren biktimei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoa” izeneko dokumentuak hauexek biltzen ditu: zioen azalpena, 17 artikulua, bi xedapen gehigarri, iragankor bat eta lau azken xedapen.

Zioen azalpenak dioenez, Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikulua laguntza ekonomiko batzuk aurreikusten ditu baliabide ekonomiko nahikorik ez duten sexu-indarkerien biktimentzat, haien autonomia ekonomikoa eta oneratzeko integrala errazteko.

Lege-aurreikuspen hori garatzeko, uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretua eman da, sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen eta besteak beste, honako hauek arautzen ditu: laguntzaren onuradun izateko baldintzak, «sexu-indarkeriaren biktima», «familia-unitatearen mendeko biktima» eta «ardurapean dauden pertsonak» definizioak, biktima-izaera egiaztatzeko modua, eskaera-epea, laguntzaren zenbatekoa eta luzapena, laguntzak izapidetzeko eta emateko organo eskudunak, eta, hala badagokio, laguntza horiek itzultzea. Era berean, laguntza berriro jasotzeko aukera ematen du, laguntzaren onuradun den biktimak sexu-indarkeria berriro jasaten duenean, behar bezala egiaztatuta, betiere horretarako baldintzak betetzen badira.

Hori dela eta, beharrezkoa da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak dekretu honen bidez laguntza horiek emateko eta ordaintzeko prozedura arautzea, EAEn Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 15. artikulua d) apartatuan ezarritakoaren arabera Garapen Komunitarioari, Gizarte Ongizateari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko eginkizunak dituelako esleituta.

III.- GOGOETA OROKORRAK

“Sexu-indarkeriaren biktimei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoa” aurkeztu zaigu azter dezagun. Bertan arautzen dira, besteak beste: aipatutako dirulaguntzaren onuradun izateko betekizunak; «sexu-indarkeriaren biktimak», «familia-unitatearen mendeko biktima» eta «kargupeko pertsonak» terminoen definizioak; biktima izaera egiaztatzeko moduak; eskaera-epea; dirulaguntzaren zenbatekoa eta luzapena, eta dirulaguntzak eta, hala badagokio, dirulaguntzen itzultzeak izapidetu eta emateko eskumena duten organoak.

Positiboki baloratzen dugu ekimen hori, gure erkidegoan 10/2022 Lege Organikoa eta hura garatzeko araudia aplikatuz, bereziki zaurgarria den kolektibo baten baldintzak hobetzea bilatzen duena, hau da, sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta emakumeena, beren autonomia ekonomikoa bermatzeko eta beren errekuperazio integralari laguntzeko.

Zehazki, positiboki baloratzen dugu jatorrizko herrialdeetan erregistro-aldaketa egiteko aukerarik izan ez duten emakume transexual atzeritarrek nortasuna egiaztatzeko dituzten zailtasunak aintzat hartzea, zeinen egoera 9.1 artikuluan jasotzen baita.

Hala ere, aurkezten zaigun Dekretuak gure erkidegoan Estatuko araudia garatzen duela onartuta, uste dugu legegileak aukera duela horrelako laguntza garrantzitsuak jasotzeko baldintzak hobetzeko.

Zehazki, gure ustez berrius litezkeen **baldintza batzuk** aipatu nahi ditugu, sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta emakume gehiagok jaso ahal izan ditzaten laguntzak. Besteak beste, eskaera aurkezteko unean erroldatuta egoteko derrigortasunaz ari gara.

Era berean, uste dugu eskaera egiteko prozedura oso burokratizatua izatea —aurkeztu beharreko dokumentazio karga handiarekin— oztopo gaindiezina izan daitekeela bizi-esperientzia oso larrien ondoren beren eskubideak eta erreparazio prozesuak baliatzen hasi diren pertsona horientzat.

Eta, ildo horretatik, aurkeztu zaigun Dekretuaren artikuluen aldaketa batzuk proposatuko ditugu berariazko gogoetetan.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. artikulua. Onuradunak

Lehenengo eta behin, artikulua horretako **1.a) apartatuak** xedatzen duenez, Dekretu honetan arautzen den dirulaguntzaren onuradun izateko, sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskaera egiten duten unean *“EAEko edozein udalerritan erroldatuta egon beharko dute”*.

Berririo ere errepikatzen ditugu erroldaren inguruko betekizunari buruz egindako gogoeta orokorrak: kolektiboaren zaurgarritasun berezia kontuan hartuta, proposatzen dugu, sexu-indarkeriaren biktima den emakumea administrazio-egoera irregularrean badago, arau horretan arautzen diren dirulaguntzak eskuratu ahal izatea, **osasan-sisteman erregistratuta** dagoela egiaztatuz, osasan-txartel indibidualaren (OTI) bidez.

Azaldutakoa kontuan hartuta, 1.a) apartatua honela geratzea proposatzen dugu:

“1.- Laguntza jaso ahal izango dute eskaera egiteko unean honako baldintza hauek betetzen dituzten

sexu-indarkerien biktimek:

*a) Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea edo, **egoera administratibo irregularrean egonez gero, osasun-zerbitzuetan erregistratuta egotea (Osasun Txartel Indibiduala izatea)...***

Bigarrenik, artikulua horren **3. apartatua** zera xedatzen da: *“sexu-indarkeriaren biktima bat laguntzaren onuradun bada eta berriz ere sexu-indarkeria jasaten badu, eta egoera hori berriz ere egiaztatzen bada hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntza eskuratu ahal izango du, betiere horretarako ezarritako baldintzak betetzen baditu”.*

Uste dugu beste eraso bat jasan duen biktimak berriz ere egiaztatu behar izateak berbiktimazioa eragin dezakeela. Horregatik, gomendatzen dugu, beste eraso bat egiaztatuz gero, Administrazioak, ahal den neurrian, sinplifikatu ditzala dekretu honetan aurreikusitako laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eskatutako izapideak.

9. artikulua. Dokumentazioa

Lehenengo eta behin, gogorarazi nahi dizuegu garrantzitsua dela laguntza horiek eskatzeko bidea **erraztea**, sexu-indarkeriaren biktima ahalik eta gehienek eskura ditzaten, eskakizun burokratikoak oztopo izan gabe.

Bigarrenik, 3.1.a) artikuluari buruz egin dugun gogoetaren justifikazio berberarekin, gomendatzen dugu artikulua honen idazketa berrikustea, laguntzaren eskatzailea eta berarekin bizi diren pertsonak EAEn benetan bizi direla egiaztatzeko eskatzen den **dokumentazioari dagokionez**.

13. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa

Artikulu honen **3. apartatua** zera xedatzen da: *“banku-kontuan eta onuradunak aukeratutako moduan ordainduko da dirulaguntza. Kontu hori onuradunaren titulartasunekoa izango da”.*

Banku-kontu bat irekitzea eragotz dezaketen zaugarritasun-egoerak kontuan hartuta (hala nola administrazio-egoera irregularra, gizarte-bazterkeria, diskriminazioa edo adingabetasuna), iradokitzen da ordaintzeko **mekanismo alternatibo** bat aurreikusi dadila, egoera horretan dauden biktimei laguntza benetan eskuratzea bermatuko diena.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABek egokitzen jotzen du *“Sexu-indarkeriaren biktimei dirulaguntza emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoaren 41. artikuluan aurreikusitakoa”* izapidetzea, kontsulta organo honek aldatzeko egin dituen oharrek kontuan hartuta.

Bilbon, 2025eko uztailaren 21ean

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria